

# KANALAK

Honako atal honek gure proiektua non eta nola aurkeztuko dugun plazaratzen du. Harremanen atalean esan bezala, etxetik kanpo ikasten ari diren ikasleetan zentratuko gara; eta honetarako hainbat bide erabiliko ditugu gure eskaintza azalertzeko orduan.

Gaur egun publizitatea egunerokotasuneko edozein momentutan kontsumitzen dugu, gehienetan ohartu gabe ere. Nagusiki sare sozialen erabileraren bidez. Kontuan hartuz gure bezeroen batez besteko adina baxua dela, uste dugu haiengana iristeko modurik eraginkorrena sare sozialen bitartez dela, aplikazio hauen aurrean interakzio gehiena dutenak gazteak dira eta. Hontaz, erabiliko dugun baliabide nagusietako bat publizitatea izango da; instagrameko kontu bat sortuz konkretuki. Modu honetara, gure eskaintza modu erakargarriago batean salduko dugu gailu digitalei etekina ateraz eta enpresaren ezagutza zabalduz. Gainera, enpresa ezagun askok publizitateari garrantzi handia ematen diotela ohartu gara, eta guk gure proiektua modu berean bideratu nahi dugu.



Harremanetan jartzeko unean, lokal bat alokatu dugu, arazoren bat balego bezeroekin hitz egiteko orduan topaketa puntu bat eduki dezagun. Hala ere, hitz orduak adosterako garaian webgunean ikusgai daude enpresaren helbide elektroniko eta telefono zenbakiak. Behin bakoitzaren lehentasunak eta ezaugarriak jakinda; Whatsapp-etik egingo dugu bezero bakoitzaren jarraipena xehetasunik baldin balego. Webgunean gure enpresari buruzko informazioa izateaz gain, gure helburuak zeintzuk diren eta gure menu eta



produktuen prestakuntza eta antolakuntza ere txertatuta daude. Bestalde, produktu bakoitzaren osagaiak eta bakoitzaren jatorria azalduta agertuko da, gure jakiak nondik datozen eta bakoitzaren etiketa erreala ikus dezaten.

Banaketa kanalei erreparatuz, gure bezeroek txertatu dituzten helbidez helbide joango gara astelehenetan, aste hortako jakiak banatzera. Egunero menu edo produktu

ezberdin eta osasungarri bat prestatuta, sukaldatzean gatazkak dituztenentzat, edota egunerokotasuneko errutinan harrapaturik hau egiteko denborarik ez dutenentzat.

Bukatzeko, astero harpidetzea eta ordaintzea esakatzen dugu, nori daki aste batetik bestera zer gertatu daitekeen. Gainera, produktu hain freskoak erabilia, jangarri mantentzeko, kontserba epeak motza izatea komeni du.